

Fermin Muguruza

musikaria eta abeslaria

«Isilpean egotea beharrezkoa da»

Fermin Muguruza abeslari irundarrak isilpean pasa du azken urtea. Orain, beste disko berri batekin dator: *In-komunikazioa*. Disko berri honetan inkomunikazioaren gaineko hausnarketa bat eta hausnarketa horren inguruko proposamen bat dakar.

Ametz Arzallus/**IRUN**

Fermin Muguruzak irailaren 27an aurkeztuko du disko berria. Aurkezpena baino lehenagoko lanetan, Irungo Metak disketxearen lokalean erantzun zien Egunkariako galderei.

•Zerk bultzatu zaitu disko berri bat ateratzera?

Hogei urte daramatzat musika munduan sartuta, bi urte ziren azken diskoa atera nuela, eta askatasun handia sentitu dut. Nik nahi nuenerako denbora neukala ikusi dut. Orduan, musikaren harra barruan daramadanez, lanari ekin nion. Gauza asko nituen apuntatuta, eta horiek denak landuz, oso lan mardula egin dugula iruditzen zait. Latza bezain ederra izan da. Oso ederra, baina aldi berean oso latza, egunero jaiki eta diskoan pentsatzen nuelako. Ia obsesio bihurtzeraino. Orduan, orain askatua sentitzen naiz.

•Disko honetan zer berrikuntza dakarzu.

Lehenik eta behin lehen diskotik dagoen erritmo jamaikarrekiko konstante bat mantentzen da. Baina, horri ukitu pertsonal bat erantsi diot. Beste zenbait estilo ere nahastu ditut, nahaste bat eginez. Erritmo elektronikoen nahasketetan ere gauza bereziak sortu dira, baina beti ere reaggaeak daukan kadentzia berezi hori mantenduz. Haizeen harmoniak, berriz, jazz musikatik datoz, eta hor dago DJ Zigor, Seletah Kolektibokoa, scratch-ak egin dituen, soinu bereziak sortuz. Eta gero koroa oso Soul kutsukoa da, eta baita Joseba Tapiaren trikitixa ere. Nik uste hor arriskatu dugula, eta esperimintatu dugula, baina emaitza oso ona dela. Instrumentazio aldetik oso aberatsa da. Kanta guztietan oso presente daudelako haizeak, koroak, eta Mikel Azpirozen teklatu ezberdinak. Disko honetarako, oso obsesiboak garenez, dena probatu nahi izan dugu.

•Hainbeste soinu nahastuz esan liteke perfekzionismoaren bila ibili zarela?

Perfekzionismoa baino gehiago gauza berriak probatzeko gogo da. Gainera, inperfekzionismoa aldarrikatzen dugu, horrek bereizten baikaitu besteengandik eta horrek egiten baikaitu gizaki. Adibidez, lehen kantuan haize sekzioekin solasaldi txiki bat sortu genuen, saxoa, tronboia eta tronpetaren artean, eta pentsatu genuen «hola atera zaigu, ba hola mantenduko dugu». Tapiaren trikitixa batek ere tekla bat nahiko izorratua zeukan, eta soinu berezia ateratzen zuen. Baina esan nion «ez, hori hola mantenduko da.»

•Ezagunak dira Negu Gorriakekin zabaldu zenituen lemak, *Hitz egin* edo *Ideiak zabaldu*, baita Brigadistekin kantatutako *Hartu hitza* bezalakoak. Orain nola etorri da *In-komunikazioa* izenburua?

Nik uste *In-Komunikazioa* izenburuarekin lehengo lema berdina azaltzen dudala. Kontua da, agian, beste bide bat erabiltzen dudala mezu hori zabaltzeko. Baina lehengo kezka berdinarekin jarraitzen dut. Sentimendu berdina da, komunikatzeko gogo berdina, baina orain iruditzen zait beste modu batean adierazi behar ditudala gauzak. Euskal Herrian inorekin elkar ulertzen ez garen momentu batean gaude. Zure ildokoa ez dena traidoretzat hartzen da. Dena presiopean dago. Beraz, lehengo mezua zabaltzen saiatu naiz. Horretaz, berriz ere hauxe da esan nahi dudana: «Ei! Hitz egin dezagun». Baina beste era batera.

•Dub Manifest taldea berezia izan zen mundu osoko musikariak elkartu zenituelako taldean. Disko berrian ere esparru eta leku ezberdinetako jendearekin egin duzu lan. Bereziki aberasgarria zaizu lan metodo hori?

Bai, izugarri aberasgarria da. Gozatu egiten duzu gainera. Adibidez Dub Manifesten esperientzia izugarria izan zen, nolabait Babeleko esperientzia izan zelako. Hasieran, nik taldekide denak ezagutzen nituen, baina beraiek ez zuten elkar ezagutzen. Frantsesez, gazteleraz, italieraz, eta euskeraz hitz egin behar zenuen, eta eromena zen. Baina hor sortu zen kimika izugarria izan zen, eta hiru urtez ibili ginen jotzen. Esperientzia aldetik izugarria, baina noski, gero logistika aldetik oso zaila zen. Hasieran posta elektronikoz bidez komunikatzen ginen, baina gero entseguak egiteko sekulako zailtasunak geneuzkan; bidaiak egin... Baina tira, hasi eta bukatu zoragarria izan zen. Orain ere gogo handia nuen berriz ere holako jendearekin banda antzeko zerbitu osatzeko. Disko honetan gainera hiru kolaborazio ere badaude: bata da Afrikarena (Etsaiarekin abesten duen neska), gero Boloniako italiar bat dago, eta azkenik dominikar neska bat. Nik beti internazionalistatzat jo dut neure burua, eta horrelako elkarteak, niretzat, musika munduan ibiltzeak eman didan gauzarik handienetakoa dira.

•Atxagarekin izan zenuen elkarrizketa batean Atxagak zioen zuregan gehien miresten zuena zure obra bakoitzaren atzean filosofia bat zegoela zela. Obra honen atzean zein filosofia dago?

Inkomunikazioaren gaineko hausnarketa bat eta hausnarketa horren inguruko proposamen bat dago. Portadatik bertatik hasita, dena da, ea zer egin dezakegun frustrazioaren kontra. Hemen frustrazio sententzia handi bat dago, eta orduan terapia bat behar dugu. Azkenean, diskoa elkarlaneko lan bat izan da, elkarrekin komunikatu dugu eta elkarrekin gauzak hitzartu. Sorkuntzaren arloan hori izugarria da. Beraz, ea posible dugun arlo txikietan dagoen komunikazio hau eremu zabalagoetara eramatea.

Bestalde, gaur egun ideien matxinada baten beharra dugu, berriz ere gauza guztiak eztabaidatu behar ditugu. «Ados, hau hola da, baina zergatik?» Gero eta kontserbadoreagoa den Europako gizarte honetan, berriz ere egin behar duguna da, irauli. Eta horretarako ideiak berreskuratu eta eztabaidatu behar ditugu. Kanta gehienetan etengabeko galdezkatze bat, edo proposamen bat dago. Iruditzen zait edozein kantu berri inpotenziaren kontrako beste manifestu berri bat dela.

•Nola lortzen duzu zure mezu hori musika eta hitz hutsen bidez jendeari helaraztea?

Askotan, jendea jasotzen duenarekin identifikatzen da. «Ah bai nik ere sentitzen dut zirrara hori». Eta musikak, taupaden antzera, oso inpulsiuoa denez, ahal hori du; erreakzio bat sortzea jendearengan. Eta mezua hola iristen da.

•Azken urtebete honetan isilpean egon zara. Zer izan da arnasberritze garai bat, lanerako garai bat...

Holako momentuak beharrezkoak dira. Gu etengabe ari gara publikoan hitz egiten, edozeri buruz iritzia ematen. Eta behar da momentu bat non isilik egon behar duzun, eta hausnartu behar duzun. Beraz bira bukatu nuenean, erabaki nuen ez elkarrizketarik ematea eta isilik egotea. Nik uste hori oso ona izaten dela. Orain jendeak «ea noiz hasten zaren» esaten dit, eta hori isilik egonda lortzen duzu. Politika mailan hori zapatistek egiten dute oso ongi. Isiltzen dira eta beren isiltasunarekin asko esaten dute. Eta horrek izugarritzeko pisua du. Musikan ere isiltasuna oso garrantzitsua da.

•Nola ikusten duzu memento honetan euskal musikaren egoera?

Iruditzen zait memento honetan ez dagoela oso proposamen interesgarririk. Halaxe pentsatzen dut, baina ez nau kezkatzen. Azken batean hala izan behar duelako. Memento batean oso gauza garrantzitsuak egon ziren, eta orain ez daude. Baina etorriko dira, seguru. Honek zikloka funtzionatzen du. Gainera iruditzen zait euskal musikan nahiko jarrera negartia dagoela. Bai taldeen aldetik, eta baita

disketxeen aldetik ere. «Gauzak oso gaizki daude, ez dira diskoak saltzen..». Eta ez nago ados. Musikak oraindik apasionatzen gaitu.

•Azken aldian alor berri batzuk ere jorratu dituzu. Besteak beste, «Basurdea» film laburreko musika osatu zenuen.

Niri proposamen asko egin izan dizkirate film laburretan aktore paper txikiak egiteko, eta ez dut inoiz onartu izan. Azkena, Ane Muñozek eskatu zidan bere film laburreko protagonista izateko. Baina ezetz erantzun nion. Orduan, musika egitea nahi izan zuen. Hori bai. Eta esperientzia polita izan zen. Oso ondo pasa nuen. Holako beste proiekturen bat baldin balego, pentsatuko nuke, baina zergatik ez.

•Hendaiko Antxeta irradian ere ostegunero «Kontrakalea» programa emititzen duzu. Lehen Egin Irratian «Igo bolumena» egiten zenuen. Zerk bultzatu zaitu irratera itzultzera?

Batetik irratigintza asko gustatzen zait, eta Egin Irratiko esperientzia gogoan neukan. Irratiak askatasun handia ematen dizu. Zuk nahi duzuna esaten duzu, musika jarri... Oso irratizalea naiz. Bestetik, Antxeta irratiaren proiektua oso polita eta interesgarria iruditzen zait. Txingudi bailaran zenbait herri gaudelako, komunitate ezberdinak bizi garelako, eta sekulako inkomunikazioa daukagulako. Beraz, holako proiektu bat egitea Hendaian, ingururako eta euskaraz, proiektu bezala ikaragarria iruditzen zitzaidan.

EUSKAL MUSIKA

«Euskal musikan nahiko jarrera negartia dagoela iruditzen zait»

DISKOAREN IZENBURUA

«‘In-Komunikazioa’, hitz egitera deitzeko lehengo mezu bera da, beste era batean adierazia»

«Musika edozein matxinadaren soinu banda izango da»

A. A./**IRUN**

Fermin Muguruzak internazionalistatza du bere burua. Azken urte honetan ere, mundurik mundu ibili da herri txikien borrokak ezagutzen.

¶ Palestina bere larrienean zegoenean, Arafat babestera joan zen elkartasun taldean egon zinen. Nolako egunak izan ziren?

Ezin ukatu izua sentitu nuela. Gure ondoan disparatzen hasten zirenean, izu handia izaten genuen. Bata bestearekin estutu, aurrera segi, eta azkenean nolabait iritsi ginen Ramalaraino. Ramalan bost egunean egon nintzen. Ni ez nintzen Munkatan sartu. Gu ospitalean egoten ginen, eta handik Munkataraino joaten ginen. Lehen egunean atariraino joan ginen, eta hiru lagun sartu ziren janaria,

sendagaiak, eta sakelako telefonoen bateriak eramatera. Hurrengo egun batean, beste talde bat joan zen, tartean Paul Nicholson, eta militarrek despistatu samar ikusi zituztenez, barrura sartu ziren. Gu tokatu baginen han, gu sartuko ginen. Bost egunetan sentsazio handiak bizi izan nituen. Holako jendearekin holako momentuak konpartitzea itzela izan zen. Eta pentsatzen jarrita, Arafat agian horri esker dago bizirik.

•Bartzelonan ere ibili zara «beste mundu bat posible da» leloaren atzean. Musikaren bidez uste duzu posible dela mundua aldatzea?

Musika komunikatzeko tresna bat da. Gainera ez da inoiz egon iraultzarik musika gabe. Ska adibidez, Jamaikaren independentziaren aldeko musika izan zen. Gero etorri zen reaggaea. Bestalde, zenbait kantuk lorpen handiak erdietsi dituzte. *Special Haka*-k egin zuenean *Free Nelson Mandela*, horrek izugarriko hedapena izan zuen, eta Nelson Mandela zein zen ez zekiten leku askotan, kanta horren bidez jakin zuten. Musika edozein matxinadaren soinu banda izango da. Lehengoan mezu elektroniko kurioso bat jaso nuen, non esaten zidaten: «Aupa, Fermin: saiatuko dira zu kolpatzen baina zuk jarraitu, zu zarelako ezker internazionalismoaren CNN-a!».

•Palestina, Chiapas, herri txikien borrokak bertatik ezagutu dituzu. Zer aurkitu duzu han?

Herri bakoitza, jende bakoitza, unibertso bat da. Hil edo biziko borrokan dauden herri horietan, bizitzarekiko beste ikuspegi bat aurkitzen duzu. Palestinan, atzean tiroak entzuten diren bitartean, beste palestinar bati eskutik helduta ibiltzea izugarria da. Hitzik egin gabe asko komunikatzen duzu. Edo kurduekin dantza egitea, edo berbeereak Paristik etxera doazenean hemen gelditu eta horiekin trago bat hartzea, itzela da. Holakoetan ez zaizu inporta ateratzen duzun argazkia, baizik eta barruan gelditzen zaizuna.

•Musikari askok erakusten dute halako sentsibilitatea talde minoritarioekiko. Alabaina, Manu Chao kritikatu izan da, bere kantuetan jende xehea babestu arren eta gizarte globalizatzaile honen aurka azaldu arren, multinazionalen eskutik ibili delako. Nola ikusten duzu kritika hori?

Bai, baina kritiketatik asko ikasten da, eta entzun dut Manu Chaok utzi egin duela multinazionala. Guri ere Kortaturen garaian, Anje Duhaldek hala esaten zigun: «Fermin, ni biziki Kortatu zalea naiz baina gauza bat erran behar dizut: zuek oso iraultzaileak eta independentistak azaltzen zarete, ongi iruditzen zait, baina gero gazteleraz kantatzen duzue». Joino, pentsatzen jarri eta egia zen. Baina gerora, euskaraz kantatzen hasi eta euskaraz ikasi genuen.
